MURUETA

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN ETA MURUETAKO UDALAREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA, "BIDEGORRIA ARGIZTATZEKO PROIEKTUA. 1 TARTEA: KAMIÑOKO – LARRONDO ETA 2 TARTEA 2: ABRASOLO – FLORES, MURUETAN" OBRAK EGITEKO

CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE LA DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA Y EL AYUNTAMIENTO DE MURUETA PARA la EJECUCIÓN DE LAS OBRAS "PROYECTO DE ALUMBRADO DE BIDEGORRI. TRAMO 1: KAMIÑOKO – LARRONDO Y TRAMO 2: ABRASOLO – FLORES, EN MURUETA"

Bilbon, 2022ko an

En Bilbao, a de 2022

## PARTE-HARTZAILEAK

## REUNIDOS

ALDE BATETIK, **IMANOL PRADALES GIL jauna,** Bizkaiko Foru Aldundi Txit Goreneko Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Saileko foru diputatua. BFA P4800000D IFKrekin.

DE UNA PARTE, **D. IMANOL PRADALES GIL**, Diputado Foral del Departamento de Infraestructuras y Desarrollo Territorial de la Excma. Diputación Foral de Bizkaia, con CIF P4800000D.

BESTE BATETIK, **JULEN KARRION LAMIKIZ jauna**, Muruetako (Bizkaia) Udaleko alkate-udalburua. Muruetako Udala P4808200B IFKrekin.

DE OTRA, **DÑA. JULEN KARRION LAMIKIZ**, alcalde presidente del Ayuntamiento de Murueta (Bizkaia), con CIF P4808200B.

## ESKU HARTU DUTE

## INTERVIENEN

Lehenak, Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako foru diputatua den aldetik, Aldundia ordezkatuz.

El primero en su calidad de Diputado Foral del Departamento de Infraestructuras y Desarrollo Territorial, y en representación de la misma..

Bigarrenak, Muruetako alkate-udalburua den aldetik, Udalaren legezko ordezkari gisa.

El segundo como Alcalde-Presidente del Ayuntamiento de Murueta, en representación legal del mismo.

Parte-hartzaileek LANKIDETZA-HITZARMEN hau sinatzeko legezko gaitasuna aitortzen diote elkarri.

Los intervinientes se reconocen capacidad legal suficiente para otorgar el presente CONVENIO DE COLABORACIÓN, y a tal efecto

## AURREKARIAK

I.- Bai Bizkaiko Foru Aldundiak bai Muruetako Udalak beharrezkotzat jotzen dute "BIDEGORRIA ARGIZTATZEKO PROIEKTUA. 1 TARTEA: KAMIÑOKO – LARRONDO ETA 2 TARTEA 2: ABRASOLO – FLORES, MURUETAN" obrak egitea.

## EXPONEN

I.- Que tanto la Diputación Foral de Bizkaia como el Ayuntamiento de Murueta consideran necesaria la ejecución de las obras de "PROYECTO DE ALUMBRADO DE BIDEGORRI. TRAMO 1: KAMIÑOKO – LARRONDO Y TRAMO 2: ABRASOLO – FLORES, EN MURUETA"

II.- Komenigarritzat jotzen da obra horiek egitea, argiteriaren azpiegiturari, bereziki, eta bidegorriari, motorizatu bako ibilgailuentzako bide gisa, jarraipena emateko.

III.- Ondore horretarako, bi administrazioen interesak bakoitzaren eskumenen ikuspegitik koordinatze aldera, lankidetzaren eta eraginkortasunik eta ekonomiarik handienaren irizpideei jaramon eginik, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 48. artikuluak, Toki Araubidearen Oinarriei buruzko apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 57. artikuluak, haiekin bat datozen gainerako manuek eta aplikatu beharreko arauek administrazio publikoei ematen dizkieten ahalmenak erabiliz, bi alderdiek honako LANKIDETZA-HITZARMEN hau formalizatzen dute, ondoko klausula hauen arabera:

II.- Que la ejecución de dichas obras se estima conveniente para dar continuidad a la infraestructura del alumbrado en particular y al bidegorri como canal de tránsito no motorizado.

III.- Que, a tal efecto, con el fin de coordinar los intereses de las dos administraciones desde el punto de vista de sus respectivas competencias atendiendo a los criterios de cooperación y máxima eficacia y economía, y haciendo uso de las facultades que para las administraciones públicas resultan del artículo 48 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público y del artículo 57 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, de Bases del Régimen Local y demás preceptos concordantes y normativa aplicable, ambas partes proceden a formalizar el presente CONVENIO DE COLABORACIÓN con arreglo a las siguientes:

## KLAUSULAK

### LEHENENGOA.- HITZARMENAREN XEDEA ETA ALDE BAKOITZAK EGIN BEHARREKO JARDUKETAK

Bizkaiko Foru Aldundiko Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Sailaren eta Muruetako Udalaren arteko lankidetza da honako hitzarmen honen xedea da ““BIDEGORRIA ARGIZTATZEKO PROIEKTUA. 1 TARTEA: KAMIÑOKO – LARRONDO ETA 2 TARTEA 2: ABRASOLO – FLORES, MURUETAN” proiektuaren obrak egitea, azalpen-zatian Lehenengo atalean emandako ezaugarrien arabera.

### Muruetako Udala

1.- Hitzarmen hau dela bide eta bera behar bezala bete dadin, obrak egiteko behar den lurra jarri, forala ez izaten, eta ukituriko zerbitzuak berriro ezarriko ditu Muruetako Udalak bere kontura, baina zerbitzuon berrezarpena haien titularrek kudeatuko dute (Iberdrola, Telefónica, Gas eta abar). Beharrezkoa izanez gero, jabetza kentzeko espedientea izapidetuko du, obrak egiteko helburuaz.

Aurreko paragrafoan ezarritako betebehar ekonomikoak bete ahal izateko, aipaturiko gastuei

## CLÁUSULAS

### PRIMERA.- OBJETO DEL CONVENIO Y ACTUACIONES A REALIZAR POR CADA PARTE

Es objeto del presente convenio la colaboración entre el Departamento de Infraestructuras y Desarrollo Territorial de la Diputación Foral de Bizkaia y el Ayuntamiento de Murueta en orden a la ejecución de las obras de “PROYECTO DE ALUMBRADO DE BIDEGORRI. TRAMO 1: KAMIÑOKO – LARRONDO Y TRAMO 2: ABRASOLO – FLORES, EN MURUETA” identificadas anteriormente en el apartado Primero de la parte expositiva.

### Ayuntamiento de Murueta

1.- En virtud del presente Convenio y para su debida ejecución el Ayuntamiento de Murueta procederá a su costa a la aportación del suelo necesario, que no sea foral, y a la reposición de los servicios afectados gestionables por los titulares de los mismos (Iberdrola, Telefónica, Gas, etc.) para la ejecución de las obras. Si fuera necesario tramitará el oportuno expediente expropiatorio para tales fines.

Al objeto de poder cumplir con las obligaciones económicas establecidas en el párrafo precedente,

oso-osorik aurre egiteko aurrekontu kreditu egoki eta nahikoak onartuko ditu Muruetako Udalak bere aurrekontuen pentzuan.

el Ayuntamiento de Murueta aprobará con cargo exclusivo a su presupuesto los créditos presupuestarios adecuados y suficientes para hacer frente íntegramente a dichos gastos.

2.- Udalaren betebeharra da hitzarmen honetan identifikatutako obra kontratatu, zuzendu eta burutzea, harik eta dagozkion kontratuak likidatu arte. Horrez gain, zeregin horietarako beharrezkoak diren espedienteen izapideak egingo ditu.

2.- Constituye obligación del Ayuntamiento, contratar, dirigir y ejecutar la obra identificada en el objeto de este convenio, hasta la liquidación de los correspondientes contratos, debiendo tramitar a tal efecto los expedientes de contratación que resulten necesarios

3.- Udalak onartuko du Muruetako udal-mugartean bidegorriaren argiztapen-tartearen mantentzea eta titulartasuna; bai hitzarmen honena, bai etorkizunean BI-2235 errepideko obrekin egin beharrekoarena.

3.- El Ayuntamiento aceptara el mantenimiento y titularidad del tramo de alumbrado del bidegorri en el ambito del termino Municipal de Murueta. Tanto el de este convenio como el futuro a realizar con las obras de la BI-2235

Bizkaiko Foru Aldundia

1.- Bizkaiko Foru Aldundiak obrak egiteko beharrezko foru lurrak jartzeko konpromisoa hartu du

2.- Bizkaiko Foru Aldundiak proiektua eta hitzarmen honen objektuan apaitatuko obrak berrikusiko ditu

3.- Bizkaiko Foru Aldundiari dagokio hitzarmenaren xede diren obrak finantzatzea

Diputación Foral de Bizkaia

1.- La Diputación Foral de Bizkaia se compromete a la aportación de los suelos forales necesarios para la ejecución de las obras

2.- La Diputación Foral de Bizkaia revisará el proyecto y las obras objeto del presente convenio

3.- Corresponde a la Diputación Foral de Bizkaia la financiación de la obras objeto del Convenio

BIGARRENA: -ALDEEK BEREN GAIN HARTUTAKO BETEBEHARRAK ETA KONPROMISOAK

1.- Hitzarmen honetan ezarritakoari dagokionez, Bizkaiko Foru Aldundiko Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Sailak konpromisoa hartzen du gehien-gehienez ere EHUN ETA HAMAZORTZI MILA HIRUREHUN ETA BAT EURO ETA BERROGEITA HIRU ZENTIMOko (118.301,43 €) ekarpena egiteko, 2022ko aurrekontu ekitaldiaren kontura. Zenbateko horrek ez du baimendu den aurrekontuko kreditua gaindituko.

Aurreko paragrafoen ondoriozko konpromiso ekonomikoari aurre egiteko, onarturik daude, hitzarmen hau sinatu baino lehen egon ere, aurrekontu kreditu egoki eta nahikoak, eta eginik

SEGUNDA:- OBLIGACIONES Y COMPROMISOS ECONÓMICOS ASUMIDOS POR LAS PARTES

1.- A los efectos establecidos en el presente Convenio, el Departamento de Infraestructuras y Desarrollo Territorial de la Diputación Foral de Bizkaia se compromete a aportar con cargo al ejercicio presupuestario 2022 la cantidad máxima e irrebasable de CIENTO DIECIOCHO MIL TRESCIENTOS UN EUROS CON CUARENTA Y TRES CENTIMOS (118.301,43 €) importe que no superará el crédito presupuestario autorizado.

En orden a hacer frente al compromiso económico derivado de los párrafos precedentes, están aprobados con anterioridad a la suscripción del presente documento, los créditos presupuestarios

dago 2022eko ekitaldiko aurrekontuko diru-izendapena, honako aurrekontu-partida honen kontura: 73299 Ekonomikoa, 453116 programa, 1002 zentro kudeatzailea, PEP 2007/0742. Horra egozten da honako hitzarmen honetan ezarri den ekarpena.

adecuados y suficientes, existiendo consignación presupuestaria en el ejercicio 2022 con cargo a la siguiente Partida Presupuestaria: Económico 73299, Programa 453116 Centro Gestor 1002, PEP 2007/0742, a la que se imputará la aportación prevista en el presente convenio.

2.- Baldin eta obra-kontratuaren likidazioaren zenbatekoa aurreko puntuan adierazi den kopurua baino txikiagoa bada, zenbateko hori itzuli egin beharko dio Udalak Bizkaiko Foru Ogasunari.

2.- En el supuesto de que la liquidación del contrato de obras fuese de importe inferior a la cantidad expresada en el párrafo uno precedente, dicho importe deberá ser reintegrado por el Ayuntamiento a la Hacienda Foral de Bizkaia.

3.- Bizkaiko Foru Aldundiak hitzarmen honen ondorioz bereganatzen duen konpromiso ekonomiko bakarra goiko lehenengo puntuan adierazitakoa denez, kopuru hori ordaindurik amaitu egiten dira hitzarmenak aldundiari dakarzkion betebehar guztiak, eta, beraz, Foruako Udalaren kontura egingo da, oso-osorik, udal horrek obraren likidazioa gauzatu arte egin behar duen beste edozein ordainketa gehigarri, likidazioa bera ere barne delarik.

3.- Siendo el único compromiso económico que asume la Diputación Foral de Bizkaia en virtud del presente Convenio el expresado en el apartado número uno precedente, con su abono quedan extinguidas todas las obligaciones que del mismo se derivan para la Diputación y por tanto cualquier pago adicional que fuere necesario realizar por el Ayuntamiento de Forua hasta la liquidación de la obra, ésta incluida, correrá a cargo exclusivamente de dicho Ayuntamiento.

4.- Arestion aipatu den lehenengo idatz-zatian ezarri den zenbatekoa hilabeteko epean ordaindu beharko da, honako hitzarmen hau sinatzen den egunetik aurrera zenbatzen hasita.

4.- El abono de la cantidad establecida en el apartado número uno precedente se efectuará en el plazo máximo de un mes desde la firma del presente convenio.

HIRUGARRENA.- ALDEEK HITZARTURIKO BETEBEHARRAK ETA KONPROMISOAK EZ BETETZEAREN ONDORIOAK

TERCERA.- CONSECUENCIAS POR INCUMPLIMIENTOS DE LAS OBLIGACIONES Y COMPROMISOS ASUMIDAS POR LAS PARTES

1.- Aurreko apartatuetan ezarritako betebeharrak ez betetzeak hitzarmenaren suntsiarazpena ekarriko du, bederatzigarren klausulan aurreikusitako ondorioekin ekarri ere. Horrez gain, bidezkoak diren erantzukizunak eskatu ahal izango zaizkio udalari.

1.- El incumplimiento de las obligaciones establecidas en los apartados precedentes dará lugar a la resolución del presente convenio con los efectos previstos en su cláusula novena, sin perjuicio en todo caso de la exigencia de las responsabilidades al Ayuntamiento a que hubiera lugar

LAUGARRENA.- HITZARMENAREN BURUTZAPENA ETA HARTUTAKO KONRPOMISOAK JARRAITU, ZAINDU ETA KONTROLATZEKO MEKANISMOAK

CUARTA.- MECANISMOS DE SEGUIMIENTO, VIGILANCIA Y CONTROL DE EJECUCIÓN DEL CONVENIO Y DE LOS COMPROMISOS ADQUIRIDOS

1.- Obraren zuzendaritza Muruetako Udalari dagokio betiere, baina, hala ere, Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Sailak, bere teknikarien bitartez, edozein kasu eta unetan ikuskatu ahal izango du obraren burutzapena, eta horretarako

1.- Sin perjuicio de que la Dirección de la Obra corresponda en todo caso al Ayuntamiento de Murueta, el Departamento de Infraestructuras y Desarrollo Territorial a través de sus técnicos, podrá supervisar en todo caso y momento la ejecución de la

beharrezkotzat hartzen dituen azalpen eta agiri guztiak eskatu ahal izango dizkio udalari, bere teknikariei eta udalak obra zuzendu eta burutzeko sinatzen dituen kontratu guztien adjudikaziodunei.

misma, pudiendo solicitar a tal efecto, cuantas explicaciones y documentación estime precisa del Ayuntamiento, de sus técnicos, y de los adjudicatarios de todos lo contratos firmados por dicho Ayuntamiento para la dirección y ejecución de la obra.

2.- Halaber, obra burutzeko egiten diren izapide guztien garapen eta burutzapenaren berri eman beharko dio Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Sailari, batez ere obraren adjudikazioari, hasierari, ziurtagiri guztien kopia baten bidalketari, amaierari, obra-jasoketa edo harrerari eta likidazioari dagokienez.

2.- Del mismo modo deberá comunicar al Departamento de Infraestructuras y Desarrollo Territorial el desarrollo y ejecución de los trámites que se realicen en ejecución de la obra, especialmente de la adjudicación, inicio, remisión de una copia de todas las certificaciones, finalización, recepción y liquidación de la obra.

3.- Era berean, obrak egitearen ondorioz hirugarrenei, Bizkaiko Foru Aldundiari edo udalari berari kalte eta/edo galerarik eraginez gero, Muruetako Udalaren erantzukizun esklusiboa izango da, hain zuzen, kalte edo galerok ekarritako ondorioei aurre egitea, eta, beraz, Bizkaiko Foru Aldundia kontu horren inguruko erantzukizun guztietatik aske geratuko da, betiere udalak kontratista adjudikaziodunari erantzukizunik jasanarazteko aukera baztertu gabe.

3.- Asimismo será responsabilidad exclusiva del Ayuntamiento de Murueta hacer frente a cualquier consecuencia derivada de los daños y/o perjuicios que se pudiera ocasionar a terceros, a la Diputación Foral de Bizkaia o al propio Ayuntamiento con motivo de la ejecución de las obras, quedando por tanto la Diputación Foral de Bizkaia, exonerada de toda responsabilidad al respecto y sin perjuicio en todo caso de que el Ayuntamiento pueda repercutir contra el contratista adjudicatario.

Obrak jaso ondoren, eraikuntzako akats ezkutuengatik hondatzen badira, Muruetako Udalak zuzeneko erantzukizuna izango du Bizkaiko Foru Aldundiarekin, eta hitzarmen honen bidez egindako ekarpena itzuli beharko dio, betiere udalak kontratista adjudikaziodunari kalte eta galerarik jasanarazteko aukera baztertu gabe.

Si una vez recibidas las obras, se arruinan con posterioridad por vicios ocultos de la construcción responderá directamente el Ayuntamiento de Murueta ante la Diputación Foral de Bizkaia, debiendo reintegrarle la aportación realizada en virtud del presente Convenio, sin perjuicio de que el Ayuntamiento pueda repercutir contra el contratista adjudicatario por daños y perjuicios.

## BOSGARRENA- JARRAIPEN ETA KONTROL BATZORDEA

## QUINTA.- COMISIÓN DE SEGUIMIENTO Y CONTROL

1.- Hitzarmen honen jarraipena egiteko batzorde bat eratuko da, honela osatuko dena: Muruetako Udalaren ordezkaritzan pertsona bat eta Bizkaiko Foru Aldundi Txit Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Saileko beste bi; Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Saileko ordezkarietako bat izango da batzordeko burua (sailak berak izendaturik).

1.- Se constituirá una comisión de seguimiento del presente convenio, integrada por una persona en representación del Ayuntamiento de Murueta y otras dos del Departamento de Infraestructuras y Desarrollo Territorial de la Excma. Diputación Foral de Bizkaia, ostentando uno de los representantes del Departamento Foral la presidencia de la comisión (a nombramiento por el departamento).

2.- Batzordearen eginkizunak hauek izango dira: hitzarmena interpretatu eta betetzean sortzen diren arazo guztiak ebaztea, hitzarmenean aurreikusitako jarduketen burutzapen normalaren jarraipena egitea, eta alderdiak

2.- Sus funciones serán las de resolver cuantas cuestiones pueda plantear la interpretación y el cumplimiento del presente convenio, así como las de llevar a cabo el seguimiento de la normal ejecución de las actuaciones previstas en el mismo,

informaturik egoteko nahiz haien konpromisoak behar bezala betetzeko aukera ematen duten irizpide eta moduak zehaztea.

determinando los criterios y modos para posibilitar la mutua información y adecuado cumplimiento de los compromisos respectivos.

3.- Hitzarmenaren indarraldian zehar, alderdietako edozeinen proposamenez, lanak behar bezala joan daitezen beharrezkoa den guztietan bilduko da batzordea, aldez aurretik biltzeko deialdia eginik.

3.- Durante la vigencia del convenio y a propuesta de cualquiera de las partes, la comisión se reunirá previa convocatoria siempre que lo requiera la buena marcha de los trabajos.

4.- Batzordea baliozkotasunez eratu ahal izateko quoruma batzordekideen gehiengoa izango da, eta batzordearen erabakiak botoen gehiengoz hartuko dira.

4.- El quórum necesario para la válida constitución de la comisión será el de mayoría de sus miembros, adoptándose sus acuerdos por mayoría de votos.

Alderdi bakoitzak egin beharreko jarduketak justifikatzeko eta kontrolatzeko epea eta modua

Plazo y forma de Justificación y control de las actuaciones a realizar por cada una de las partes

1. Hitzarmenaren xede den jarduketaren proiektua aurkeztu beharko da.

1. Se deberá presentar proyecto de la actuación objeto del convenio.

Aurkezteko gutxi gorabeherako data 2023ko abendua izango da..

La fecha estimativa para su presentación será la de diciembre de 2023

2.- Obra burutzeko egiten diren izapide guztien garapen eta burutzapenaren berri eman beharko dio Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Sailari, hauek eragingorrak izango diren momentuan, batez ere obraren adjudikazioari, hasierari, ziurtagiri guztien kopia baten bidalketari, amaierari, obra-jasoketa edo harrerari eta likidazioari dagokienez.

2. Se deberá comunicar al Departamento de Infraestructuras y Desarrollo Territorial el desarrollo y ejecución de los trámites que se realicen en ejecución de la obra en el momento en el que éstos sean efectivos, especialmente de la adjudicación, inicio, remisión de una copia de todas las certificaciones, finalización, recepción y liquidación de la obra.

Obrak adjudikatzeko gutxi gorabeherako data 2024ko urria izango da, obrak hasteko data 2025ko otsaila izango da eta amaitzekoa 2025ko azaroa izango da.

Las fechas previstas de forma estimativa para la adjudicación de las obras será el octubre de 2024 el inicio de las mismas el febrero de 2025 y su finalización el noviembre de 2025.

3.- Obra hasi aurretik, obren hasiera jakinarazi beharko zaio jarraipen batzordeari eta Kudeaketa Administratiboa eta Hitzarturiko Inbertsioak Bideratzeko Atalari.

3.- Antes del comienzo de la obra se deberá comunicar su inicio a la Comisión de Seguimiento y a la Sección de Gestión Administrativa e Inversiones Convenidas.

SEIGARRENA.- HITZARMENA ALDALTZEKO ARAUBIDEA

SEXTA.- REGIMEN DE MODIFICACIÓN DEL CONVENIO

Alde sinatzaileek aho batez hartutako erabakia behar da hitzarmena aldatzeko.

La modificación del convenio requerirá acuerdo unánime de las partes firmantes.

ZAZPIGARRENA.- HITZARMENAREN ARAUBIDEA ETA INTERPRETAZIOA

SEPTIMA.- REGIMEN E INTERPRETACIÓN DEL CONVENIO

1.- Hitzarmen honek izaera administratiboa du, eta bera interpretatu eta garatzean, herri administrazioen arteko lankidetza-hitzarmenei aplikatu beharreko antolamendu juridiko administratiboa baliatuko da Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 48. artikuluan, eta aplikatu beharreko arauetan ezarritakoaren arabera.

2.- Jarraipen Batzordeak ebatziko ditu hitzarmen hau interpretatu, bete eta betearaztean sortzen diren arazo guztiak, aurreko klausulan adierazitakoaren arabera. Hala ere, akordiorik lortzen ez bada, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arduratuko da arazoez eta bera izango da halakoak ebazteko eskuduna, jurisdikzio hori arautzen duen legean xedaturikoaren arabera.

ZORTZIGARRENA.- HITZARMENAREN INDARRALDIA

Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legea aplikatuz, lankidetza hitzarmen hau sinatuko den egunean jarriko da indarrean, eta indarrean egongo da hitzarmenaren xede diren obrak jaso eta likidatu arte. Nolanahi ere, gehienez 4 urtez iraungo du hitzarmen honek. Epe hori igaro eta gero aldeek epea luzatzea adostu dezakete, beste lau urtez, edo bestela, indarraldia bukatutzat eman.

BEDERATZIGARRENA.- HITZARMENA AZKENTZEA

1.- Osorik betetzearen edo suntsiaraztearen zioz azkenduko da hitzarmen hau.

2.- Hitzarmen hau suntsiarazteko zioak izango dira:

- Indarraldia bukatzea hitzarmena luzatzeko erabakirik hartu gabe.
- Sinatzaileek aho batez hartutako erabakia.
- Sinatzaileetakoren batek hartutako betebeharrak eta konpromisoak ez betetzea.
- Epaileak deuseztasuna adierazteko erabakia hartzea.

1. El presente convenio es de naturaleza administrativa, rigiéndose en su interpretación y desarrollo por el ordenamiento jurídico administrativo aplicable a los convenios de colaboración entre administraciones públicas, según lo establecido en el artículo 48 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico y demás preceptos concordantes y normativa aplicable.

2. La resolución de los problemas de interpretación y cumplimiento que pueda plantear el presente convenio o su ejecución serán resueltos por la Comisión de Seguimiento según lo referido en la cláusula anterior. Ello sin perjuicio de que no alcanzado un acuerdo, el orden jurisdiccional contencioso-administrativo conocerá y será competente para resolver dichas cuestiones según lo dispuesto en su ley reguladora.

OCTAVA.- PLAZO DE VIGENCIA DEL CONVENIO

En aplicación de la Ley 40/2015 de 1 de octubre de Régimen Jurídico del Sector Público, el presente convenio de colaboración entrará en vigor el día de su firma, y estará vigente hasta la recepción y liquidación de las obras objeto del mismo. Sin embargo, su duración máxima no excederá de 4 años, pudiendo una vez transcurrido ese plazo acordar unánimemente una prórroga por un periodo de cuatro años adicionales o su extinción.

NOVENA.- EXTINCIÓN DEL CONVENIO

1.- El presente convenio se extinguirá por su íntegro cumplimiento o por resolución.

2.- Serán causas resolutorias del presente convenio:

- El transcurso del plazo de vigencia sin haberse acordado la prórroga del mismo.
- El acuerdo unánime de todos los firmantes.
- El incumplimiento de las obligaciones y compromisos asumidos por parte de alguno de los firmantes.
- Por decisión judicial declaratoria de nulidad.

- Legeetan ezarritako bestelako zioengatik.

HAMARGARRENA.- DATUEN BABESA

Alderdi sinatzaileek honako hauetan ezarritakoa betetzea hitzartzen dute: pertsona fisikoen babesari buruzko eta datu pertsonalak tratatzearen eta datu horien zirkulazio librearen alorreko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 679/2016 Erregelamendua, 2016ko apirilaren 27koa, eta eta 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoa..

HAMAIKAGARRENA.- ARAUBIDE JURIDIKOA

Hitzarmen honek izaera administratiboa du, Sektore Publikoaren Araubideari buruzko 40/2015 Legearen aurretiazko tituluko VI. kapituluan xedatu denarekin bat etorriz.

Hitzarmen honek bete egiten ditu Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 16ko 169/2014 Foru Dekretuaren 46 artikuluan ezarritako baldintzak. Foru-dekretu horrek, izan ere, Bizkaiko Lurralde Historikoko Aurrekontuei buruzko Araudi Orokorra onesten du, zeinak garatzen baitu Aurrekontuei buruzko Foru Arauaren testu bategina.

Hitzarmena garatu eta burutu bitartean aldeen artean sortzen diren eta bosgarren klausulan ezarritako Jarraipen eta Kontrol Batzordean ezin ebatzi daitezkeen auziak administrazioarekiko auzietarako jurisdikzioaren menpe jarriko dira, Administrazioarekiko Auzietarako Jurisdikzioa arautzeko uztailaren 13ko 29/1998 Legean xedatu denarekin bat.

Hitzarmen honetan xedatu ez den orori dagokionez, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko 40/2015 Legea, Aurrekontuei buruzko 5/2006 Foru Arau Orokorraren testu bategina eta horren erregelamendua onetsi duen abenduaren 3ko 5/2013 Arau-dekretua eta aplikatu beharreko beste edozein xedapen aplikatu beharko dira.

Eta aurreko guztia onartu eta berarekin ados direla adierazteko, esku-hartzaileek hitzarmen

- Por cualquier otra causa prevista en las leyes

DECIMA.- PROTECCIÓN DE DATOS

Las partes firmantes se comprometen a cumplir con lo dispuesto en el Reglamento 2016/679 del Parlamento Europeo y del  Consejo de 27 de abril de 2016 relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de datos personales y a la libre circulación de estos datos, y en la  Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y Garantía de los Derechos Digitales..

UNDECIMA.- REGIMEN JURÍDICO

El presente convenio es de naturaleza administrativa conforme a lo dispuesto en el Capítulo VI del Título Preliminar de la Ley 40/2015 de Régimen Jurídico del Sector Público.

El presente convenio cumple con los requisitos establecidos en el art. 46 del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 169/2014, por el que se aprueba el Reglamento General Presupuestario del Territorio Histórico de Bizkaia, de desarrollo del texto refundido de la Norma Foral General Presupuestaria.

Las cuestiones litigiosas que surjan entre las partes durante el desarrollo y ejecución del convenio y que no puedan ser resueltas en la Comisión de Seguimiento y Control prevista en la Cláusula Quinta se someterán a la jurisdicción contencioso-administrativa, conforme a lo dispuesto en la Ley 29/1998, de 13 de julio, Reguladora de la Jurisdicción Contenciosos-Administrativa.

Para todo lo no previsto en el presente convenio será de aplicación la Ley 40/2015 de Régimen Jurídico del Sector Público, el Decreto Normativo 5/2013, de 3 de diciembre, por el que se aprubeba el texto refundido de la Norma Foral 5/2006 General Presupuestaria, y su Reglamento, así como cualquier otra disposición que pudiera resultar de aplicación.

Y en prueba de conformidad y aceptación de cuanto antecede, los intervinientes firman el presente

honen hiru ale sinatzen dituzte, hasieran adierazitako lekuan eta datan.

documento por triplicado ejemplar en el lugar y fecha expresados en su encabezamiento.

MURUETA ALKATE -UDALBURUA

ALCALDE-PRESIDENTE DEL AYUNTAMIENTO DE MURUETA

AZPIEGITURETARAKO ETA LURRALDE GARAPENERAKO SAILEKO FORU DIPUTATUA
DIPUTADO FORAL DEL DEPARTAMENTO DE INFRAESTRUCTURAS Y DESARROLLO TERRITORIAL

Sin.Fdo.: Julen Karrion Lamikiz

Sin./Fdo.: Imanol Pradales Gil

I. ERANSKIN – ANEXO I

OBREN AZALPEN-MEMORIA - MEMORIA DESCRIPTIVA DE LAS OBRAS

"PROYECTO ALUMBRADO BIDEGORRI. TRAMO 1: KAMIÑOKO-LARRONDO Y TRAMO 2: ABRASOLO – FLORES, EN MURUETA"

Lanak, funtsean, izango dira argiteria publikoko sare bat eraikitzeko han dagoen bidegorrian —BI-3215 errepidearekiko paraleloan doana—, bi zatitan, Akurioko bidetik Forua udal-mugarteko mugara.

Lehenengo zatiak (Kamiñoko-Larrondo) 419 metroko luzera du eta 14 zutoin-argi izango ditu, ATP Paseo modelokoak, LED teknologiadunak.

Bigarren zatiak (Abrasolo – Casa Flores) 534 metroko luzera du eta 18 zutoin-argi izango ditu, ATP Paseo modelokoak, LED teknologiadunak.

Las obras consisten fundamentalmente en la construcción de una red de alumbrado público en el bidegorri existente, paralelo a la carretera BI-3215, en dos tramos que van desde la intersección con el camino de Akurio hasta el límite con el término municipal de Forua.

El primer tramo (Kamiñoko-Larrondo) tiene una longitud de 419 m. y dispondrá de 14 farolas de columna, modelo ATP Paseo, con tecnología LED.

El segundo tramo (Abrasolo – Casa Flores) tiene una longitud de 534 m. y dispondra de 18 farolas de columna, modelo ATP Paseo, con tecnología LED

II. ERANSKINA - ANEXO II

AURREKONTUA - PRESUPUESTO

"BIDEGORRIA ARGIZTATZEKO PROIEKTUA. 1 TARTEA: KAMIÑOKO – LARRONDO ETA 2 TARTEA 2: ABRASOLO – FLORES, MURUETAN
"PROYECTO ALUMBRADO BIDEGORRI. TRAMO 1: KAMIÑOKO-LARRONDO Y TRAMO 2: ABRASOLO – FLORES, EN MURUETA"

**ALUMBRADO DE BIDEGORRI**
**TRAMO 1: KAMIÑOKO-LARRONDO**
**TRAMO 2: ABRASOLO-FLORES**

PRESUPUESTO

| CAP | DESCRIPCION | importe € |
|---|---|---|
| **1** | PREPARACIÓN DEL TERRENO | 45.259,62 |
| **2** | ALBAÑILERIA | 9.066,66 |
| **3** | ALUMBRADO | 26.435,20 |
| **4** | GESTIÓN DE RESIDUOS | 1.098,00 |
| **5** | SEGURIDAD Y SALUD | 300,00 |
| **a** | P.E.M. | 82.159,48 |
| **b** | Gastos Generales (13%) | 10.680,732 |
| **c** | Beneficio industrial (6%) | 4.929,569 |
| | PRESUPUESTO DE CONTRATA | 97.769,78 |
| **d** | I.V.A. | 20.531,65 |
| | TOTAL DE LIQUIDACION | 118.301,43 |

Asciende el total de liquidación a la cantidad de CIENTO DIECIOCHO MIL TRESCIENTOS UN Euros con cuarenta y tres céntimos